

BETION TELELAGUNTZA (24 ORDUKO URRUNEKO ARRETA)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Telealarma bat da, erabiltzaileei aukera ematen diena arreta-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan ([1.6 fitxa](#)). Telelaguntzako langileek, behar izanez gero, eskatutako arreta berehala jasotzeko aukera ematen dute. Hori guztia egiteko, etxean terminal bat eta erabiltzaileak eraman beharreko sakagailu edo domina bat jartzen dira. Erabiltzailearekiko kontaktua telefonogunetik (edo urruneko arreta-taldetik) aktiba daiteke, arrisku-egoera bat dagoela pentsatzeko arrazoiak badaude. Zerbitzuari buruzko informazioa ematen du, jarraipenaren balorazioa egiten du eta, hala badagokio, emozioei laguntzen die. Esteka honetan kontsulta dezakezu [erabiltzailearen gida](#).

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mendekotasun onartua duten pertsonak, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak, mendekotasun arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonak, edo gizartetik isolatzeko arriskuan dauden pertsonak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Pertsonak egoera hauetakoren batean egon behar du:

- 75 urte edo gehiago izatea eta bakarrik bizitzea, edo
- 65 urte baino gehiago izatea eta mendekotasun arriskuan egotea (gutxienez 23 puntu balorazio baremoan), edo

- Mendekotasun onartua (I., II. eta III. graduak), edo
- Gizarte-isolamenduaren arriskuan egotea, udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuek hala erabakita.

Gainera, etxean telefono-linea bat izan beharko du, eta ekipoa behar bezala erabiltzeko gaitasuna (berak edo zaintzaileak).

Zenbat balio du zerbitzuak?

Telelaguntza-zerbitzuaren **kostua hilean 4 euro** da 2024an. Salbuespenak edo murrizketak ezartzen dira, bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Telelaguntza Zerbitzua ematea Eusko Jaurlaritzaren ardura da.

Non eska dezaket zerbitzua?

- I BetiOn Telelaguntza Zerbitzuaren ataria: [Web orrira joan](#)
- Zure auzo, udalerri edo eskualdeko oinarrizko gizarte zerbitzuak

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)